

Denboraren makina
Anarkia eta
basektomia Donostian

❑ *Ezpalak*
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Ihesi
Ataun-Zaldibia,
jentilen
bideetatik

ARGIA

e r d i k o k a i e r a

kultura eta aisia

Haserrearen begirada

“Sexuen arteko berdintasuna lortua da jada”. “Emakumeek lehen ukatzen zitzaizkien eskubide guztiak eskuratu dituzte eta aukera berdintasun garaiak bizi ditugu Mendebaldeko gizarte aurreratueta”. Sarri entzuten diren aldarrikapen autokonplaziente horiek, errealitatetik nahi baino urrunago daude, zoritxarrez. Soilik itxurazkoa den eta, paperean idatzia egon arren, praktikara erabat eramaten ez den berdintasunaren “fartsa” amorruz salatzen duen erakusketa da Gasteizko Montehermoson dagoen *Haserrearen begirada*.

Yuri Nagashimaren lan hau ikusgai dago *Haserrearen begirada* erakusketan. Emetasunaren topikoak hautsi nahi ditu egileak bere lanarekin.



Begi amorratuak berdintasun faltsuari

NERE LUJANBIO

Argazkiak: Montehermoso kulturunea

EZ DA KONTU BERRIA artearen historia (ofiziala) gizonen kontua izan dela esatea. Gizonak izan dira jenio handiak, gizonak aukeratu dituzte landu beharreko gaiak, gizonak erabaki dituzte joko-arauak, eta batez ere, gizonak idatzi dute historia. Eta historia horretan apenas ageri da emakumerik, ez sortzaile paperean behintzat. XX. mendeko 60ko hamarkadan mugimendu feminista indartzen hasi zen unetik, ordea, etengabe aldarrikatu izan da artearen historia berrikusteko beharra eta orain arte aintzat hartu ez direnen lana aitortzearen garrantzia. Lan handia egin da bide horretan, baina bada zer eginik oraindik.

Beirazko sabaiaren aurka, amorruez

Duela urtebete pasatxo, ibilbide berri bati ekin zion Gasteizko muinoan dagoen Montehermoso Kulturunea. Xabier Arakistainek, *Arakis*ek, zentroko zuzendari izendatu zuten unetik argi utzi zuen, feminismoa izango zela zentroak landuko zituen ildo kontzeptualen ardatz nagusia. Arte garaikidea hiriarekin eta bizitzarekin lotzeko helburuz, kulturen eta sorkuntzan generoen arteko berdintasuna lantzea izan da Gasteizko zentroak hartu duen bidea, horretarako arte munduak bigarren mailakotzat izan dituen artistak –emakumeak, batez ere– eta gaiak –emakumei lotuak, gehienak– aztertuz eta erakutsiz.

Kathe Burkharten *Blueballs* koadroa, Liz Taylor aktorean oinarrituta egin zuen serieko ezagunena da.



Haserrearen begirada zentroaren helburu eta asmoekin bat datorren proiektua da. Izenburua Amelia Valcarcel filosofoaren *La política de las mujeres* liburutik hartu dute Arakis eta Maura Reilly komisarioek. Hogeita hamar urte ingurura heltzean, lan munduan sartu eta emakume askori profesionalki aurrera egitea eragozten dien “beirazko sabaia” aurka talka egiteak sorrarazten duen amorruari, haserrearen begirada izena eman zion Valcarcelek. Erakusketako komisarioek bat egiten dute Valcarcelekin eta egun bizi dugun generoen arteko berdintasun egoera itxurazkoa, faltsua, dela adierazten dute, baita arte munduan ere.

Egoera horren aurrean erreakzionatzeko, kexatzeko, haserretzeko, aldarrikatzeko, hainbat bide biltzen ditu erakusketak. Guztira hamaika herrialdetako hogeita artista elkartu dira Gasteizen. Guztiak emakumeak dira, eta hori da elkar-tzen dituen; hori, eta bereziki, emakume izate horren gainean gogoetan aritzea.

Hamaika ikuspegi

Montehermosoko sarrerako patioan bertan, Cristina Lucas andaluziarraren bi bideoak egiten diote harrera ikusleari. Lehenengoan, plaza publiko batean dagoen Rousseau-ren bustoak zaplaztekoak, irainak, makilakadak... izugarritzko egurra jasotzen du. Fanfarre baten musika alaiaren doinuek animaturik, aurretik igarotzen diren emakumeak dira filosofo handia erasotzen dutenak; hori bai, eraso mendekua da. Off-eko ahots batek, bitartean, Rousseau-ren *l'Émile*-ko testu bat errezitatzen du, emakumea gizonaren meneko izateko sortutako bigarren mailako izaki bezala definitzen duen eta jatorrian heziketa-



Cristina Lucasen bideo bateko pasarte. Irudian emakume bat Rousseau-ren bustoari botila botatzear ageri da.

Erakusketaren datuak

Izenburua: *Haserrearen begirada*.
Lekua: Gasteizko Montehermoso Kulturunea.
Noiz arte: maiatzaren 4a arte.
Doako bisita gidatu zerbitzua egunero.

ra bideratua zegoen testua. Horra hor, haserrearen adierazpen sinple eta primarioena.

Hemendik aurrera, hainbat gai, baliabide eta ikuspunturekin egingo dugu topo. A. L. Steiner estatubatuarak, esaterako, argazki instalazio post-pornografiko gordina eraiki du ur biltegiko erakustareto-ra garamatzen maldan. Coubert-en *Munduaren jatorria* koadroa abiapuntutzat hartuta, eta horri erantzunez, aluaren eta emakumearen gorputzaren eta sexualitatearen aldarrikapen gartsua egiten duen irudi zurrunbiloak hartuko gaitu.

Charlotte Schleiffert-ek, berriz, horman itsatsitako marrazkietan, *burkarekin* jantzitako emakumeak, “ohoreari” lotutako delituengatik aurpegia azidoz erre dietenak, ablazioaren gaia, eta abar irudikatu ditu. Andrea Bowersek berriz abortuaren gaiari heldu dio, eta 60ko hamarkadan erabili ziren afixa sorta ipini du horman, baita abortatu ezinak sortzen dituen

dramei buruzko bideoa ere. Yurie Nagashimak, emetasunaren topikoak hautsi, eta haurdun tripa harro erakusten duen amagaia- ren argazkia aurkeztu digu, larruzko txaketa eta kuleroak besterik ez soinean, zigarroa ezpain artean eta ikuslea popatik hartzera bidaliz, desafiozko begiradarekin.



Txaro Arrazola, Tracey Moffat, Mireia Sallars, Alice Anderson, Itziar Okariz... ikuspuntu ezberdin asko biltzen ditu erakusketak. Eta baliabideak ere hamaika, marrazki sinpleenetatik hasi eta zinema kutsuko ikus-entzunezko lanetaraino. Denetik topatuko dugu erakusketan; badaude lan interesgarriak eta baita axalekoak ere, erabat kontzeptualak direnak eta mezua zuzen-zuzen eta argi-argi helarazten dutenak, estetikoki oso zainduak eta itxura gehiegi zaintzen ez dutenak. Eta badaude erakusketaren izenburuarekin zuzenean bat egiten dutenak, baita lotura askoz ere lausoa goa dutenak ere. Gai zehatz bati buruzko erakusketek sarri artelanaren funtsa mugatu egiten baitute eta horretan kabitutako beharrak, izan litezkeen beste interpretazio interesgarri batzuk antzutu.

Asmo onen arriskuak

Izaera propioa bilatzeko bidean, ez da lan erraza arte zentro baten proiektu kontzeptuala zehaztea. Are gutxiago, zentro horrek aurrez egindako urteetako ibilbidearen memoria gordetzen badu. Montehermosok aurkitu du jorratu nahi duen bidea: kultura, eta arte sor-


kuntza zehazki, ikuspegi feministatik begiratu eta aztertuko dute, beste esparru batzuetan bezala, artean ere berdintasuna bultzatzeko asmoarekin.

Orain arte antolatutako erakusketetan, emakumezkoak izan dira artista gehien gehienak, eta gaia ere horixe izan da, emakumea —eta emakume izatearekin lotutakoak—. *Arakisek* ohiko arte zirkuitu ofizialetan sarri baztertzen diren sortzaileei eta gaiei protagonismoa eman die, eta eskertzekoa da. Baina arrisku bat ere badu. Aditzera eman dezake emakumeek emakumei buruzko lanak soilik sortzen dituztela, haserrearen begirada hori dela sortzera bultzatzen dituen eta horretaz soilik jarduten dutela. Eta hori errealitatetik urrun dago. Montehermosok abiatu duen bidea interesgarria izan liteke eta beharrezkoa, baina tentuz ibili beharko du asmo onenarekin hasitakoa irauli eta asmo horien beroien kontra eror ez dadin. Helburua ez da arte feministaren gotorleku bat sortzea, emakumeek egindakoa (ere) aztertu, zabaldu eta normalizatzea baizik. ■

Arakisek ohiko arte zirkuitu ofizialetan sarri baztertzen diren sortzaileei eta gaiei protagonismoa eman die, eta eskertzekoa da. Baina arrisku bat ere badu. Aditzera eman dezake emakumeek emakumei buruzko lanak soilik sortzen dituztela

Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: ☐ Bankuz
☐ Taloiez
☐ Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria —Gipuzkoa—**

Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”
mahai-jolasa



“888 txiste”
liburua



“Txoriak txori”
lamina



%25eko beherapena
ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian
165 € Iparr Euskal Herrian

